

## IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako batzaraldian, zati xedatzailean honela dioen erabakia hartu zuen:

- 1.- "Lazkaoko Udaleko 2. klaseko idazkari lanposturako gaitasuna duen pertsona bitarteko funtzionario izendatzeko oposizio-lehiaketa deitzea.
- 2.- Deialdia arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek erabaki honen eranskinean daude jasota."

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du. Horren aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke, administrazioarekiko auzietako errekurtsioa jarri baino lehen, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian zuzenean inpugna daiteke, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko, bidezkotzat jo litezkeen besteez gainera.

Lazkao, 2022ko urtarrilaren 25a  
Alkatea,  
Kepa Zubiarrain Erauskin

(digitalki izenpetuta)

*Lazkaoko Udaleko Idazkaritza lanpostua (bigarren mailakoa), bitarteko izaeraz betetzeko oposizio-lehiaketaren oinarri arautzaileak.*

*Lehena. Deialdiaren helburua.*

Deialdi honen helburua honako hau da: Lazkaoko Udalean hutsik dagoen Idazkaritza lanpostua (bigarren mailakoa) bitarteko funtzionario batek betetzeko hautaketa prozesua egitea, oposizio-lehiaketa sistema bidezkoa, lanpostu hori gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionario batek bete arte.

Plaza hori Lazkaoko Udaleko plantillan txertatuta dago; eta lanpostua honela definituta dago lanpostuen zerrendan:

- Lanpostua: Idazkaria.
- Mota: Berezia.
- Eskala: Izaera nazionalako gaikuntza.
- Azpieskala: Idazkaritza.
- Maila: Bigarrena.
- Saillkapen taldea: A.1.
- Hizkuntza-eskakizuna: 4a, nahitaezkoa.
- Derrigortasun data: 2021-06-21.
- Osagarri berezia: 28.131,51 euro.
- Destino osagarriaren maila: 27.

*Bigarrena. Parte hartzeko baldintzak.*

1. Hautaketa probetan parte hartu ahal izango dute eskaera orriak aurkezteko epearen azken egunean honako baldintza hauek betetzen dituzten izangaiek:
  - Espainiako nazionalitatea izatea.
  - 16 urte beteak edukitzea eta nahitaez erretiratzeko adina ez gainditzea.
  - Lanpostuko zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea (baldintza hori dagokionean egiaztatuko da mediku azterketaren bidez).
  - Diziplina espediente batez edozein administrazio publikoren edo organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzutik baztertuta ez egotea edo kaleratua ez izatea; eta, ebazpen judizial bidez, erabateko desgaiakuntza edo gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioei gordetako eskalan sartzeko, desgaiakuntza berezia ez izatea.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo balio-kiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua onartutakoak) A1 azpitaldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko eskatzen duen unibertsitate titulua edukitzea; hau da, lizentziatura edo graduko titulua edukitzea, edo hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, beren homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da. Horrelakorik ez dute beharko, araututako lanbideen eremuan, Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen arabera aitortutako lanbide kualifikazioa dutenek.

- 4. edo 3. hizkuntza eskakizuna (HE) egiaztatzen duen agiria edukitzea.

Bete nahi den lanpostuak derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna dauka esleituta; horrenbestez, 4. HE izatea ezinbestekoa da lanpostua betetzeko (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 98. artikulua).

Hala eta guztiz ere, izangai batek berak ere ez badu adierazitako 4. HE egiaztatzen, lanpostuari 3. HE aplikatuko zaio, soil-soilik deialdi honetan betetzeko eta sortuko den lan poltsan sartzeko ondorioetarako (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikulua).

Hortaz, 3. HE daukatela egiaztatzen duten izangaiak ere parte hartu ahal izango dute hautaketa prozesu honetan.

2. Eskaera orriak aurkezteko epearen bukaeran, oinarri honetan aipatutako baldintza guztiak bete beharko dira; eta egoera horri eutsi egin beharko zaio lanpostuaz jabetu arte, bitarteko funtzionario izendatu ondoren.

*Hirugarrena. Eskaera orriak.*

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera orri normalizatuak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Oinarri hauen I. eranskinean jasotako ereduaren arabera izan behar da; behar bezala bete eta sinatuta aurkeztu behar da; eta bertan eskatzaileak adierazi behar du bigarren oinarrian jasotako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskaera orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Aipatu ereduak eskuragarri jarriko da [www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus) webgunean.

- b) Aurkezteko tokia edo bidea:

- Udalaren erregistro elektronikoen bidez: Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoa.

<https://www.lazkao.eus> web orrian dago.

- Lazkaoko Udalaren aurrez aurreko erregistroan, Euskadi Enparantza 1 20210 Lazkao (beheko solairuan dagoen Herritarren Arreta Zerbitzuan).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroetan.
- Estatuko Administrazioaren, beste edozein autonomia erkidegoren, probintzietako diputazioen, kabildeen eta uharterako kontseiluen erregistroetan; eta, halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 121. Artikuluan aipatzen dituen udalerrietako udal erregistroetan.
- Correos-eko bulegoetan: gutun-azal ireki batean eraman behar da eskabidea, Correos-eko enplegatuak data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrrera udaleko erregistroan.
- Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

- c) Aurkezteko epea:

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 10 egun baliodunen barruan.

*Laugarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Eskaera orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- NANaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hizkuntza-eskakizuna (HE) egiaztatzeko agiriaren fotokopia, deialdiaren zortzigarren oinarrian xedatutakoari jarraiki.

2. Lehiaketaldian aurkeztu beharreko dokumentazioa (oposizioaldia gainditu dutenek bakarrik): bederatzigarren oinarrian aurreikusitakoa.

3. Hautaketa prozesua amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa: hamaikagarren oinarrian aurreikusitakoa.

*Bosgarrena. Izangaiak onartzea.*

1. Eskaera orriak aurkezteko epea amaituta, alkatearen ebazpenaren bidez onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko iragarki-taulan eta udal webgunean ([www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus)).

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta ondorengo egunetik hasita, izangaiek erreklamazioak aurkezteko edo eskabideak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango dute.

Erreklamaziorik edo zuzenketa ez balego, behin-behineko zerrenda hori, besterik gabe, behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik edo zuzenketa balego, onetsiak ala ezetsiak izango dira behin betiko zerrenda onartzeko hartu beharko den beste ebazpen batean. Aipatu ebazpena lehen adierazitako era berean argitaratuko da.

2. Halaber, epaimahaiaren osaketa eta lehenengo ariketaren eguna, lekua eta ordua onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesteko ebazpenean zehaztuko dira.

*Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Epaimahaiburua:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

Epaimahaikideak:

- Lazkaoko Udaleko A1 taldeko karrerako funtzionario bat; eta haren ordezkoa.
- Gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioen eskalako bi funtzionario; eta haien ordezkok.

Idazkaria:

- Lazkaoko Udaleko karrerako funtzionario bat eta haren ordezkoa.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezialitatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezzen zainduko da; eta, era berean, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna bilatuko da.

Epaimahaiak aholkularien edo enpresa adituen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako; eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

2. Epaimahaikideek ez dute jarduterik izango, eta hala jakinaraziko diote alkateari, eta gainera errekusatuak izan daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen bada.
3. Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitarte ezarritako arauak jarraituz jardungo du. Edozein kasutan ere, epaimahaiburuaren aginduz idazkariak deialdia egin ondoren bilduko da epaimahaia, hautaketa probei ekin aurretik behar besteko aurrerapenarekin. Epaimahaia legez eratuak jotzeko, bertan egon beharko dute epaimahaiburuak eta idazkariak, edo horien ordezkok, eta gutxienez mahaikideen erdiak.

Erabakiak hartzeko, bertaraturik botoen gehiengoa beharko da. Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik (hitza bakarrik izango du). Berdinketak epaimahaiburuaren kalitatezko botoak desegingo ditu.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legekotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeaz arduratuz.

Epaimahaiak erabateko independentziarekin, diskrezionaltasun teknikoarekin eta objektibotasunarekin jardungo du; eta bere proposamenak bete beharrekoak izango dira izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat.

Era berean, oinarri hauek aplikatzerakoan gerta daitezkeen zalantza guztiak antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera argituko ditu; eta deialdia egoki garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi ez diren balizkoetan jarraitu beharreko irizpideak ezarriz.

Epaimahaiak idatzizko ariketen edukien konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu. Halaber, parte hartu duten izangaien nortasuna ezagutu gabe zuzenduko ditu ariketak.

4. Jakinarazpenak egiteko eta gainerako gorabeheren berri emateko, epaimahai kalifikatzailearen helbidea honako hau izango da: Lazkao Udala (Euskadi Enparantza 1, 20210 Lazkao).

*Zazpigarrena. Hautaketa prozesua.*

1. Hautaketa prozesuaren faseak.

Hautaketa prozesuak 2 fase hauek izango ditu:

- Oposizioaldian, oinarri honen 3. zenbakian deskribatzen diren probak egingo dira. Fase honen gehieneko puntuazioa 40 izango da.
- Lehiaketaldian, berriz, bederatzigarren oinarriari jarraikiz izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratuko dira. Fase honen gehieneko puntuazioa 4 izango da.

2. Oposizioaldia nola garatuko den:

Deialdi bakarra egingo da. Izangaiek, beren buruak identifikatze aldera, NAN eraman beharko dute ariketetara; edota epaimahaiaren iritziz izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri ofizial (pasaporte, gidatzeko baime, etab.).

Epaimahaiak ezinbesteko kasutzat jotako arrazoiak gertatu direnean izan ezik, ezarritako egun eta orduan ariketak eta probak egitera azaldu ez diren izangaiek hautaketa prozesutik baztertu egingo dira, eta deialdi honetan izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Epaimahai kalifikatzaileak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu egingo dizkie desgaitasunen bat izateagatik nolabait egokitzapena behar duten eta eskaera orrian hala adierazi duten pertsoneri, gainerako parte hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten, betiere egokitzapen horrek probaren edukia aldatzen ez badu eta eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltezen ez badu.

Probak egiteko eguna, ordua eta lekua udaletxeko iragarki taulan eta [www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus) webgunean argitaratuko dira.

Probak oinarri honetan aurreikusitako hurrenkeran egin beharrean beste hurrenkera batean egitea erabaki dezake epaimahaiak; halaber, erabaki dezake egun berean proba bat baino gehiago egitea.

3. Oposizioaldiko ariketak:

- Lehenengo ariketa: Izangai guztientzako derrigorrezkoa eta baztertzaila. Ariketa honetan 15 puntu lortu ahal izango dira gehienez ere; eta gutxienez 6 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko.

III. eranskineko gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz aukeratzeko erantzun anitz dituen galdera-sorta bat edo epaimahaiak erabakitako galdera teorikoak erantzun beharko dira; galdera horiek ez dute zertan bat etorri III. eranskineko gai-zerrendako epigrafe zehatz batekin.

- Bigarren ariketa: Izangai guztientzako derrigorrezkoa eta baztertzaila. Ariketa honetan 25 puntu lortu ahal izango dira gehienez ere; eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko.

III. eranskineko gai-zerrendan jasotako gaien inguruko kasu praktikoak edota galdera teoriko-praktikoak erantzun beharko dira.

Bi ariketa horien artean 20 puntu lortu beharko dira gutxienez oposizioaldia gainditzeko, ariketa bakoitza gainditzeko ezarritako gutxienerako puntuak eskuratzeaz gain.

4. Oposizioaldiko ariketa bakoitza amaitzean, izangaiek lortutako behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu epaimahai kalifikatzaileak. Argitaratu ondorengo egunetik aurrera, izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute lortutako emaitzen inguruko erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan, ariketaren kopia bat eskatu ahal izango dute izangaiek, baina horrek ez du etengo erreklamazioak aurkezteko epea.

Ezarritako epea amaitu eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik balego, epaimahai kalifikatzaileak ariketaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

*Zortzigarrena. Euskara.*

Euskararen ezagutza maila egiaztatuko da kasuan-kasuko hizkuntza-eskakizuna (4. ala 3. HE) izatea egiaztatzen duen agiri hauetakoren bat aurkeztuta: IVAPek emandako ziurtagiria; edo azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak -euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak- ezarritakoaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiriak edo agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzerakoan 3. HE egiaztatuta zeukaten izangaiek gerora 4. HE egiaztatzen badute, dagokion egiaztalaria aurkeztu ahal izango dute oposizioaldia amaitzen den arte.

*Bederatzigarrena. Lehiaketaldia.*

1. Baloratuko diren merezimenduak:

Oposizioaldiko ariketak gainditzen dituzten izangaiak lehiaketaldira igaroko dira; fase horretan, epaimahaiak merezimendu hau-ek baloratuko ditu:

1.1. Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak (4 puntu gehienez ere):

- a) Toki Administrazio Publikoan emandako zerbitzuak, gaikuntza nazionaleko Toki Administrazio funtzionarioentzako gordetako lanpostuak betetzen (honako azpieskala hauei gordetako lanpostuetan: Idazkaritza, edo Idazkaritza-Kontu hartzailetza): 0,5 puntu hiruhileko bakoitzeko.
- b) Edozein Administrazio Publikotan emandako zerbitzuak, Administrazio Orokorreko teknikari, Administrazio Bereziko goi-mailako teknikari, Administrazio goi-mailako kidegoko teknikari edo goi-mailako teknikarien kidegoko teknikari lanpostuetako zereginetan, betiere bete beharreko lanpostuaren antzeko eginkizunetan: 0,3 puntu hiruhileko bakoitzeko.

Hiruhilekora iristen ez diren zatiak dagokien proportzioan balioetsiko dira (hiru hilabete = egutegiko 90 egun). Eskaera orriak aurkezteko epea amaitu arte emandako zerbitzuak bakarrik baloratuko dira.

Baloragarria den lan eskarmentua egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira: lan egindako Administrazio Publiko bakoitzean eskumena duen funtzionarioak egindakoak. Ziurtagiri horretan honako hauek jaso behar dira: lan harreman mota; iraupena; lanpostuaren taldea (hala balegokio: eskala, azpieskala edo kategoria); eta betetako funtzioak.

2. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko epea:

Oposizioaldiko ariketen emaitzak argitaratzearekin batera epaimahaiak epe bat zabalduko du, ariketa horiek gainditu dituzten izangaiak aurreko atalean aipatu merezimenduak alegatu eta egiaztatu ditzaten. Horretarako, oinarri hauen II. eranskinean jasotako ereduak erabili behar da. Eredu hori [www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus) webgunean egongo da eskuragarri.

3. Merezimenduak baloratzea:

Hautaketa prozesu honen xede den lanpostua betetzeari begira, 4. HE egiaztatu duten izangaien merezimenduak bakarrik baloratuko dira. Eta oposizioaldiko ariketak gainditu dituztenen artean ez badago 4. HE duen izangairik, soilik kasu horretan baloratuko dira 3. HE egiaztatu duten izangaien merezimenduak.

Lehiaketaldian gehienez ere 4 puntu lortu ahal izango dira.

Epaimahai kalifikatzaileak ez ditu inola ere baloratuko emandako epean behar bezala alegatzen eta egiaztatzen ez diren merezimenduak.

Deialdian parte hartzeko eskaera orriak aurkezteko epea amaitu aurretiko zirkunstantzietan buruzko merezimenduak baloratuko ditu, ez besterik.

Merezimenduak baloratu ostean, hiru egun balioduneko epea emango da lortutako puntuazioaren kontrako erreklamazioak jartzeko.

*Hamargarrena. Hautaketa prozesua gainditu dutenen zerrenda.*

1. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuazioen guztizkoarekin osatuko da.

Berdinketa suertatuko balitz, modu honetan desegingo da hori: lehenik, oposizioaldian kalifikaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde; bigarrenik, oposizioaldiko bigarren ariketan kalifikaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde; eta, hirugarrenik, oposizioaldiko lehen ariketan kalifikaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde.

2. Azken kalifikazioa zehaztu ostean, hautaketa prozesua gainditu dutenen artean puntuazio handiena lortu duen eta hamaikagarren oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkeztu duen izangaiak izendatzeko proposamen arrazoitua egingo dio epaimahai kalifikatzaileak alkateari; edo proposatuko dio hautaketa prozesua hutsik uzteko, baldin eta izangaietako inork ez badu lortu hautaketa prozesua gaindituzat jotzeko ezarritako gutxieneko puntu kopurua. Proposamena loteslea izango da alkatearentzat.

Hautaketa prozesua gainditu duten izangaien zerrenda udaleko iragarki taulan eta [www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus) udal webgunean argitaratuko da.

*Hamaikagarrena. Dokumentuak aurkeztea.*

1. Izendatu aurretik, hautatuak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du 5 egun naturaleko epean, hautaketa prozesua gainditu duten izangaien zerrenda ezagutarazten denetik kontatzen hasita:
  - Deialdi honetan eskatutako titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.
  - Dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko agiriaren fotokopia konpultsatua.
  - Erantzukizunpeko adierazpena: diziplina espediente batez edozein administrazio publikoren edo organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzutik baztertuta ez egotearena; eta, ebazpen judizial bidez, enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaitasuna edo desgaitasun berezia ez izatearena; eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasunei buruzkoak, aurreikusitako bateraezintasun egoeretakoren batean ez egotearena.
  - Merezimenduak egiaztatzeko agirien kopia konpultsatua.
  - Medikuaren ziurtagiria: lanpostuaren zereginak eta eginkizunak behar bezala betetzen utziko ez lioken gaixotasunik, akats fisikokorik edo psikikokorik ez izatearena.

Konpultsa deialdia egin duen Administrazio Publikoko funtzionario eskudunak edo fede-emaile publiko eskudunak egin dezake. Horretarako, jatorrizko agiriak eta horien kopiak aurkeztu beharko dira.

2. Ezinbesteko kasua tartean egon gabe ez baditu aipatu agiriak epe barruan aurkezten, aurkeztutako agirien arabera ez badu betetzen bigarren oinarrian ezarritako baldintzetakoren bat, edo ez badu lanpostuari dagokion zereginak gauzatzeko behar den gaitasun fisikoa edo psikikoa, ezingo da bitarteko funtzionario izendatu; eta balio gabetuta geratuko dira egindako jardunbide guztiak. Gainera, eskaera orrian datu faltsuak jartzeagatik erantzukizuna eskatu ahal izango zaio. Hori gertatzen bada edo proposatutakoak izendatua izateari uko egiten badiu, epaimahaiak azken kalifikazioaren arabera hurrengoa den izangaia izendatzeko proposamena egingo du.

*Hamabigarrena. Izendapen proposamena eta lanpostua hartzea.*

Hamaikagarren oinarrian zerrendatutako agiriak epe barruan aurkeztuta, eta hautatutakoak bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, alkatearen ebazpenaren bidez dagokion proposamena egingo zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari: Aldundiak bitarteko funtzionario izendatu dezan, hautaketa prozesu honen xede den lanpostua betetzeko.

Proposatutako pertsona horrek izendatzeko foru aginduan ezarritako datan edo epean hartu behar du lanpostua; eta hala egiten ez badu, epaimahaiak azken kalifikazioaren arabera hurrengoa den izangaia izendatzeko proposamena egingo du.

*Hamahirugarrena. Deialdiak eta jakinarazpenak.*

1. Probak egiteko deiak, baita epaimahai kalifikatzaileak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak ere, udaleko iragarki taulan eta [www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus) webgunean argitaratuz emango dira jakitera.

Halaber, modu berean argitaratuko dira honako hauek ere: oposizioaldiko ariketen emaitzak nahiz lehiaketaldiko merezimenduen balorazioa, azken kalifikazioa eta hautaketa prozesua gainditu dutenen zerrenda.

2. Interesdunek deialdiari buruzko informazio orokorra aipatu webgunean izateaz gain, hemen ere aurkitu ahal izango dute: Lazkaoko Udala (Euskadi Enparantza 1 20210 Lazkao, Tf. 943.088.080, emaila: [udala@lazkao.eus](mailto:udala@lazkao.eus)).

*Hamalaugarrena. Lan poltsa eratzea.*

1. Bi lan poltsa osatuko dira, azkeneko puntuazioaren arabera hurrenkeran (puntu gehien lortu duenetik hasita) eta izangai bakoitzak egiaztatutako HE (4a edo 3a) adierazita:

- Lehenengo lan poltsa hautaketa prozesua zazpigarren oinarriaren 3. zenbakian ezarritako moduan gainditu duten izangaiek osatuko dute: 4. HE egiaztatu dutenek. Lan poltsa horrek lehentasuna izango du hornitu beharreko lanpostuari derrigorrezkotasan data gainditua duen 4. HE baitagokio.

- Bigarren lan poltsa hautaketa prozesua zazpigarren oinarriaren 3. zenbakian ezarritako moduan gainditu eta 3. HE egiaztatu duten izangaiek osatuko dute.

3. HE egiaztatuta daukatela ageri diren izangaiek, hautaketa prozesua burutu ostean 4. HE egiaztatzen badute, dagokion egiaztagiria aurkeztu ahal izango diote Lazkaoko Udalari. Hori eginda, 4. HE dutenen zerrendan azalduko dira, puntuazioaren arabera dagokien postuan.

2. Lan poltsa horiek erabili ahal izango ditu udalak berak lanpostu berean edo antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko, betiere lanpostu horiek Administrazio Orokorreko teknikari edota Administrazio Bereziko goi mailako teknikari azpieskalakoak badira.

3. Halaber, lan poltsa horiek erabili ahal izango dira Gipuzkoako toki entitateetan gaikuntza nazionalako Toki Administrazioaren funtzionarioei gordetako lanpostuak bitarteko funtzionario baten izendapenaren bidez betetzeko. Edonola ere, aurretik egiaztatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak xede horrekin eratutako lan poltsetan ez dagoela izangairik lanpostua betetzeko prest.

Horretarako, interesdunen baimena tarteko, lan poltsa hauek Gipuzkoako toki entitateei laga ahalko zaizkie, bitarteko funtzionarioaren dagokion izendapen proposamena egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiari.

*Hamabosgarrena. Datu pertsonalak.*

Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalen tratamenduak datu pertsonalak babesteko araubidea bete behar du: hain zuzen, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) eta Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa.

Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak eta prozesutik sortutako lan poltsak kudeatzeko erabiliko dira bakar-bakarrak, interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta, hain zuzen ere DBEOak 6.1 artikulua a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

Izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko 14.3 oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datu lagapen horren helburu bakar eta esklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, lege aurreikusitako bezala; eta izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Izangaiek emandako datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa prozesu hau eta hortik sortutako lan poltsak kudeatzea izango da. Lazkaoko Udala da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkatu eta garraiatzeko eskubideez baliatu nahi izanez gero, Lazkaoko Udalera jo beharko dute izangaiek.

*Hamaseigarrena. Gorabeherak.*

Epaimahai kalifikatzaileak sor daitezkeen zalantzak argitu eta hautaketa prozesua egoki burutzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izango du, oinarriotan adierazi gabeko gaiei dagokienez.

Deialdi honen, bere oinarrien eta horien nahiz epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortzen diren administrazio egintzen kontra dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.